

Arriaga peñaren aurkezpena

Athletic-eko zenbait zaletu eta Joseba txiki-txikitatik ezagutzen zuten zenbaiten ekimenez, hilabete honen 19an aurkeztu zen Athletic taldean lehen denboraldia bete duen Joseba Arriaga futbolari ermua-rraren peña. Bazkide kanpaina duela zenbait hilabete jarri zuten martxan eta dagoeneko, 140 bazkideetik gora dira. Honi buruz hitz egiteko zuzendaritzako kide diren Atalasio Lopez, Juan de Dios Lopez, Eusebio Lopez, Luis Maria Ganuza eta Antonio Garciarekin egon gara.

- Nola sortu zitzaizuen peña egiteko ideia ?


Josebaren berri aspaldi genuen. Athletic-eko beheko mailetan egon denean ere jarraitu izan dugu. Lehen taldera igonez gero, peña egingo genuela zin egin genion.

- Bazkide kanpaina ere egin duzue...

Ermuko eta Mallabiko zenbait tabernatan jarri da eskuragarri bazkide txartela ateratzeko aukera. Urtean 10 euro ordaindu behar dira. Momentuz, 140 bagara. Gure erronka 500 bazkide egitea da.

- Josebaren omenezko lehen peña al da?

Beste bat ere badu



Astrabuduan eta Bilboko Uribarri auzoan ere "Josebaren lagunak" deritzen elkarteak sortu da.

- Urtean zehar zerbait antolatzeko asmorik?

Denboraldia amaitu baino lehen saiatuko gara zerbait antolatzen. Dena den, irailetik aurrera txangoak, autobusak, futbol edo futbito lehiaketak... baditugu gauzak esku artean.

- Herri Mugarekin harremanik baduzue?

Ondo moldatzen gara. Gure aurkezpen ekitaldira bi ordezkari gonbidatu ditugu eta elkarlanerako prest azaldu gara.

Asier Ibaibarriaga

Joseba Arriaga, futbolaria:

"Oso pozik nago peñaren sorrerarekin"

- Peña bat herian...

Oso pozik nago. Bihotz-bihotzez eskertzen diet guztia.

- Denboraldia bukatzeaz da. Zer moduz doa?

Taldeak gorabehera asko izan ditu. Ez dugu erregularitasunik mantendu. Azkenaldian hobeto ari gara baina denboraldi gorabeheratsua daramagu.

- Duela gutxi sartu duzu lehendabiziko gola...

Osasunaren aurka izan zen. Asko poztu nintzen. Horren atzetik luzaroan ibili naiz.

- Gurpegiren dopingak eman du zeresanik...

Txiki-txikitatik ezagutzen dut. Momentu latza pasatzen ari da baina tinko mantendu da. Ea jarri dioten zigorra gubitzen dioten.

- Liga zeinek irabaziko ote du?

Real Madrid-ek ditu nire ustez aukera gehien baina Erreal eta Deportiborekin kontuz!

- Eta jetsiera postuetarako...

Recreativo eta Rayo ziur. Azken postua Osasuna eta Alavesen artean egongo da.

KIROL MEDIKUNTZA

Indartu

ERA GUZTIETAKO MUTUA
ETA ASEGURUEKIN
KONTZERTATUA

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- ERDITZE-AURREKOA, ERDITZE-OSTEKOA
- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONUZIMENDU MEDIKOAK
- ESKUZ EGINDAKO VODDER DRENAJE LINFATIKOAK
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@indartu.e.telefonica.net

**Produktu artesanalak egitea...
...gure espezialitatea**

ARTISAU HARAGINTZA EL NAVARRO

Probaleku kalea 943 17 04 36
Ermua

Etxera eramaten dugu DOAN